

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

**2012ko URRIAREN 4an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2012ko urriaren 4an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, arratsaldeko 19.30 orduetan, Xabier Mujika Pagola alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Xabier Mujika Pagola

ZINEGOTZIAK: Gotzon Jauregi Sarasola
Aritz Usandizaga Larrañaga
Imanol Aranzabal Lasa

Bere ezin etorria azaltzen dute: Jon Tejeria Otermin, Karlos Irazu Muñoa eta Igor Barandiaran Perez de Arriluzea

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

...//...


Alkate jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten den Udalbatzarretako akta onestu, hala badagokio:
- 2012ko irailaren 13an egindako ohiko bilkura**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. A.A. jaunak eginiko eskaeraren azterketa, hala bada.**
- 4. Larraulgo hainbat herritarrek Andoaingo musika eskolan musika ikastaroak egiteko diru-laguntza eskaeraren azterketa, hala bada.**
- 5. Larraulgo Guraso Elkarteak aurkezturiko 2011/2012 garbiketa memoriaren berri ematea, hala bada.**
- 6. Fakturak eta ordainketak.**
- 7. Beste batzuk.**
- 8. Erregu, galderak eta mozioak.**

.../...

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADA.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

- 2012 urteko irailaren 13ko Udalbatzaren ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

BIGARREN PUNTUA **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

13/2012 Alkatetza Ebazpena, urriaren 1ekoa, P.O. andreak eginiko eskaera onestea, ebazten duena, non Larraulgo Kultur etxeko balioanitza gela erabiltzeko baimena ematen zaion.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

HIRUGARREN PUNTUA **A.A. JAUNAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA**

Ikusirik A.A.Z. jaunak, hainbat larrauldarren izenean eginiko eskaera, non datorren larunbata eta igandean, urriak 5 eta 6an herriko parke zaharraren ondoan dagoen aparkalekuan egurra ebaki behar dutela, ostiralean etorriko den egur kamioia lekua izan dezan bertan egurra uzteko, ostiraletik aparkalekua ixteko eskaera egiten die Larraulgo Udalari, egurra mozten urriaren 5ean hasiz eta urriaren 6an iluntzean bukatzeko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa,


ERABAKITZEN DU:

LEHENA: A.A.Z. jaunak eginiko eskaera onestu. Hau da, ostiraletik herriko parke zaharrean dagoen aparkalekua kotxeentzako itxiko dela, bertan, ostirala eta larunbatean dagokion herritarrek egurra mozteko, lanak bukatzean aparkalekua garbitu beharko delarik.

BIGARRENA: Aipaturiko baimena hirugarrenen kalterik gabe izango da.

HIRUGARRENA: A. jaunari jakinarazi egurra mozteko beharrezkoak diren segurtasun neurriak hartu beharko dituela eta Larraulgo Udala ez dela kargu egiten bertan ezbeharririk gertatzen bada.

LAUGARREN PUNTUA **LARRAULGO HAINBAT HERRITARREK ANDOAINGO MUSIKA ESKOLAN MUSIKA IKASTAROAK EGITEKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA**



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik A.A.J., T.E..E. eta M.E.O., larraulgo herritarrak eginiko eskaera, non azaltzen duten Andoaingo Bastero Udal Musika Eskolan matrikulatu direla, eta horretarako Larraulgo Udalari diru-laguntza eskaera egiten dioten.

Gaia, aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: A.A.J, T.E.E. eta M.E.O., larraulgo herritarrek eginiko diru-laguntza eskaera ukatu, gaur egun Larraulgo Udalak ez dituelako helburu horretarako diru-laguntzarik onartuta.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri interesdunei ematea.

BOSTGARREN PUNTUA

LARRAULGO GURASO ELKARTEAK AURKEZTURIKO 2011/2012 GARBIKETA MEMORIAREN BERRI EMATEA, HALA BADA

Ikusirik Larraulgo Guraso Elkarteak aurkezturiko 2011/2012 urteko garbiketari buruzko memoria.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo Guraso Elkarteak aurkezturiko 2011/2012 urteko garbitasunari buruzko memoria onestea.


BIGARRENA: Erabaki honen berri interesdunei ematea.

SEIGARREN PUNTUA

FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

FERRETERIA BARBE	22,17
MANPEL	59,60
TECNICA INGENIERIA,RSA	477,95
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	33,04
EINBER	480,41
GARAJE EGIN	425,68
TOLOSALDEA GARATZEN	120,00
MEGA	72,13
AMONARRIZ ITURGINTZA	91,44



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

GALPARSORO MATERIALES DE CONST.	170,27
GASNATURAL FENOSA	116,78
MOVISTAR	18,44
MOVISTAR	71,65
MOVISTAR	48,41
MOVISTAR	90,22
MOVISTAR	20,99

Udalbatzarrak **aho batez** hurrengoa,
ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **2.319,18** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

ZAZPIGARREN PUNTUA BESTE BATZUK

Presazko arrazoiak direla eta gai zerrendan ez zeuden ondorengo puntuak aztertzea erabaki dute bertaratuek aho batez:

7.3.DONOSTIAKO ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN 2. ZK. KO EPAITEGITIK IGORRITAKO ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-ERREKURTSOAREN BERRI EMATEA

Idazkari-Kontuhartzaile andreak batzarkideei berri ematen die, Estatuaren Abokatuak eta Estaduko administrazio orokorrak, 2012ko irailaren 13an, Donostiako Administrazioarekiko auzien 2 zk. ko epaitegian, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri duela, errekurritutako jarduna ondorengoa delarik:

“Inactividad del Ayuntamiento de Larraul de atender el requerimiento del Delegado de Gobierno del País Vasco que exige el cumplimiento de la Ley 39/1981 de 28 de octubre, reguladora del uso de la bandera nacional”.

Batzarkideak guztiaren berri hartzen dutelarik.

HAMABIGARREN PUNTUA ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK

Ez dira aurkezten.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 20.00 orduak direnean Alkate orde jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA